

Espediente kodea: 2024IDDE0004
Titularra: GETARIAKO UDALA

GETARIAKO GOI MAILAKO KIROLARIENTZAKO 2024. URTEKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA	CONVOCATORIA DEL AÑO 2024 DE AYUDAS A DEPORTISTAS DE EXCELENCIA DE GETARIA
<u>1. artikulua. Xedea eta bete beharreko baldintzak.</u> Dirulaguntza honen helburua da Getariako bikaintasuneko kirolariei eta behar bereziak dituzten adin-txikiko herritarrei dirulaguntza ematea da, Getariako Udalaren Aurrekontuetan aurreikusitako kredituen kontura. 2023ko ekainaren 7an argitaratutako Getariako goi mailako kirolarientzako diru-laguntzak banatzeko ordenantzan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza hau, ordenantzaren 2.artikuluak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten herritarren artean: — Getarian erroldatuta izatea. — Gutxienez 18 urteroko adina (urte naturalean 18 urte betetzen dituztenak barne) edota behar bereziak dituzten adin-txikiko herritarra izatea. — Goi-mailako kirolaria izatea (irizpideetan zehaztutako emaitzen arabera). — Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez izatea. — Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko aitorpena betetzea eskaera orrian. — Getariako Udalarekiko zerga betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko aitorpena betetzea eskaera orrian. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoekin, xedea berbera izanda ere. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako zenbatekoa ezingo da izan lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Horrelakorik gertatuz gero, murriztu egingo da oinarri hauen kargura ematekoa zen dirulaguntzaren zenbatekoa, muga ez gainditzeko.	<u>Artículo 1. Objeto y requisitos a cumplir.</u> El objeto de esta subvención es subvencionar a deportistas de excelencia de Getaria y a ciudadanos de corta edad con necesidades especiales, con cargo a los créditos previstos en los Presupuestos del Ayuntamiento de Getaria. La presente subvención se tramitará y concederá de acuerdo con las condiciones establecidas en la ordenanza de subvenciones a deportistas de alto nivel de Getaria, publicada el 7 de junio de 2023, entre los ciudadanos que cumplan los requisitos que establece el artículo 2 de la misma: — Estar empadronado en Getaria. — Tener una edad mínima de 18 años, incluidos los que cumplan 18 años en el año natural, o ser ciudadano de corta edad con necesidades especiales. — Ser deportista de alto nivel (según los resultados especificados en los criterios). — No hallarse incurso en ninguna prohibición para obtener subvenciones. — Cumplimentación de la declaración responsable acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social en el impreso de solicitud. — Cumplimentación de la declaración responsable acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Getaria en el impreso de solicitud. Las subvenciones objeto de estas bases serán compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados. En el caso de que se perciban otras ayudas, el importe total no podrá superar el coste de la actividad subvencionada. Caso de producirse ésta, se reducirá el importe de la subvención a conceder con cargo a estas bases para no superar el límite establecido.
<u>2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.</u> Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa guztira 3.000,00 eurokoa izango da, eta hori 2024 urterako Getariako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honetatik egingo da: 5100.480.173.00.01 «Goi mailako kirolarientzako dirulaguntza».	<u>Artículo 2. Partida y dotación presupuestaria.</u> El importe total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 3.000,00 euros, que se materializarán en la partida 5100.480.173.00.01 «Subvención para deportistas de alto rendimiento», de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Getaria para el año 2024.
<u>3. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta epea.</u>	<u>Artículo 3. Documentación a presentar y plazo.</u>

— Eskariak aurkezteko epea: 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko urtarrilaren 31ra, biak barne. Egindako eskariak aztertu ondoren, dokumentazioa zuzendu beharra badago, horretarako beste 5 egun baliodun egongo dira. — Eskariak aurkezteko tokia: Eskabideak presentzialki Udaletxeko harreran edo elektronikoki (B@k-Q, NAN elektronikoa, lizenpe txartela... ziurtagiri digitala izan behar da) webgunetik https://labur.eus/OqT1U eskatu ahalko da, "Eskara Orokor" bat eginda. Baita ere 39/2015 Legeak ezarritako bestelako tokietan. — Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Deialdi honen eskaera orria jaso ahalko da udaletxearen sarrera erregistroan edota www.getaria.eus webgunean. Eskabidearekin batera, ordenantzaren 3. artikuluan zerrendatutako agiriak aurkeztu beharko dira. Aurkeztu beharreko agiri hauek Getariako webgunean Udaleko ordenantzak atalean ikusgai daude: "Udala→ Ordenantzak" atalean: https://www.getaria.eus/es/ordenanzas/. Hain zuzen ere, ordenantzaren 3. artikuluan.	— Plazo de presentación de solicitudes: del 1 de enero de 2025 al 31 de enero de 2025, ambos inclusive. Una vez examinadas las solicitudes formuladas, si procede subsanar la documentación, se dispondrá de un nuevo plazo de 5 días hábiles. — Lugar de presentación de solicitudes: Solicitudes presencialmente en la recepción del Ayuntamiento o electrónicamente (B@k-Q, DNI electrónico, tarjeta lizenpe...se requiere un certificado digital) desde la web https://labur.eus/OqT1U se podrá solicitar mediante una "Solicitud General". También en otros lugares establecidos por la Ley 39/2015. — Documentación a presentar: Se podrá recoger la solicitud de esta convocatoria en el registro de entrada del ayuntamiento o en la página web www.getaria.eus. A la solicitud se acompañarán los documentos relacionados en el artículo 3 de la Ordenanza. La documentación para presentar se encuentra disponible en la página web del Ayuntamiento de Getaria en el apartado "Ordenanza del Ayuntamiento" https://www.getaria.eus/es/ordenanzas/. En concreto, en el artículo 3 de la Ordenanza.
<u>4.artikulua: Ordainketak.</u> — Ordainketa: 2024.ekitaldiari dagokion ordainketa izango da, hau da, urtariletik abendura bitartean izandako gastuak eta behin agiri guztiak justifikatu ostean egingo da ordainketa eta gehienez ere 2025eko urtarrilak 31 baino lehen. — Dirulaguntzaren zenbatekoa: Bikaintasuneko kirolarien curriculumaren balioespenean lortutako puntuazioa kalkulatu da, ordenantzaren 8.artikuluaren arabera puntuazio erlazio bat ezarriko da eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera. Azkenik kirolari bakoitzak lortutako puntuarekin laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da. Kirolari batek ezingo du guztizko laguntzaren % 40 baino gehiago jaso. Kasuren batean hori gertatuz gero, kopuru hori kendu eta puntuazio erlazioa berriz egingo da gainerako kirolarientzat. Diru-laguntzen zenbatekoak ez du inola ere gairatutako ikastaroaren edo jardueraren kostua, eta eskatzaile bakoitzak, maila bakoitzeko, behin bakarrik eskatu ahal izango du. Udalak dirulaguntza hauetarako jarritako aurrekontu partidan ez balego beharrezko diru-kopururik dirulaguntza guztiak ezarritakoari jarraiki banatzeko, eskatzaile guztien artean proportzionalki banatuko dira dirulaguntzak gehieneko muga baxuago batekin.	<u>Artículo 4: Pagos.</u> — El pago: será el correspondiente al ejercicio 2024, es decir, los gastos realizados entre enero y diciembre y una vez justificada toda la documentación, y como máximo antes del 31 de enero de 2025. — Cuantía de la subvención: Se calculará la puntuación obtenida en la valoración curricular de los y las deportistas de excelencia, se establecerá una relación de puntuación en función del presupuesto disponible según indica la ordenanza en su artículo 8. Finalmente, con los puntos obtenidos por cada deportista se determinará la cuantía de la ayuda. Un deportista no podrá recibir más del 40 % de la ayuda total. Si en algún caso esto ocurre, se restará esa cantidad y se volverá a hacer la relación de puntuación para el resto de deportistas. En ningún caso el importe de las subvenciones podrá superar el coste del curso o actividad y cada solicitante, por cada nivel, podrá solicitarlo una sola vez ayuda. En el caso de que la partida presupuestaria asignada por el Ayuntamiento para estas subvenciones no contara con las cantidades necesarias para el reparto de la totalidad de las subvenciones de acuerdo con lo establecido, las subvenciones se distribuirán proporcionalmente entre todos los solicitantes con un límite máximo inferior. La justificación de la subvención se presentará junto con la



Getariako Udala



Dirulaguntzaren justifikazioa eskariarekin batera aurkeztuko da.	solicitud.
<u>5. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.</u> Ordenantzaren 4. artikuluan xedatutako prozeduraren bitartez banatuko dira dirulaguntzak, alkate ebazpen bidez. Betiere, onuradunek zehaztutako baldintzak betetzen baditu eta horiek hala justifikatzen baditu. Dirulaguntzen ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori deialdia argitaratzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 43. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera gauzatuko da.	<u>Artículo 5. Resolución y notificación.</u> La concesión de las subvenciones se realizará por el procedimiento establecido en el artículo 4 de la Ordenanza, mediante Resolución de Alcaldía. Siempre que los beneficiarios cumplan los requisitos establecidos y así lo justifiquen. La resolución de las subvenciones pondrá fin a la vía administrativa y el plazo máximo para dictar y notificar será de seis meses. Este plazo comenzará a contarse a partir de la publicación de la convocatoria. La resolución del procedimiento se notificará a los interesados conforme a lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, y se sustanciará conforme a las disposiciones contenidas en el artículo 43 de la misma.
<u>6. artikulua. Errekurtsoak.</u> Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean. Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsoa aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.	<u>Artículo 6. Recursos.</u> Contra la presente convocatoria los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación. No obstante, los particulares podrán interponer con carácter previo recurso potestativo de reposición ante el órgano competente para aprobar las presentes bases, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En tal caso, no podrá interponerse recurso contencioso-administrativo hasta que recaiga resolución expresa de reposición o se produzca su desestimación presunta. No obstante, podrá interponerse cualquier otro recurso que estime oportuno.

Sinatzailea: Firmante	Alkatea Haritz Alberdi Arrillaga Alcalde
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: <i>Este documento se ha firmado electrónicamente. Para certificar la veracidad de este documento ir a la siguiente página de Internet:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAAA4LA9N.guK0	

